

GOBERNU JUNTAK 2023ko otsailaren 14an EGINDAKO
EZ-OHIKO BILKURAKO AKTA

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO (lehendakaria)

OÑATI

ETORRITAKOAK

BERNARDO KORTABARRIA
AINHOA LETE
UNAI ELKORO
IRAITZ LAZKANO
GORKA ARTOLA
MAITANE MUÑOZ
AINHOA CABERO
ANIK ZUBIZARRETA
AINHOA CABERO

ANTZUOLA
BERGARA
ARETXABALETA
ELGETA
BERGARA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE

Oharra: Ainhoa Lete eta Gorka Artola galdera eskaeretako heltzen dira, beraz, ez dute punturik bozkatzen.

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Leire Ucin Soraluze

2023ko otsailaren 14an, 12:30tan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko Gobernu Juntako bilerako akta onartzea, hala badagokio.

Aurreko aktari buruz inork ez du ezer esateko, beraz urtarrilaren 30eko ohiko bilkurako akta aho batez onartzen da.

2.- Argindarra kontratatzeko, Foru Kontratazio zentralako lizitaziora atxikitzea onartzea, hala badagokio

Idazkariak komentatzen du 2022an Juntak hartu zuela erabakia argindarraren lizitazio bateratuan sartzeko, baiari prezioen muturreko igoera dela medio, Gipuzkoako Foru Aldundiak bertan behera utzi zuela espedientea.

Orain berriro ireki du lizitazioa eta toki-entitateak aurkezteko gonbidapena egin du.

Puntua bozkan jartzen dute eta hau da emaitza:

Alde (7): Bernardo Kortabarria, Maite Anton, Unai Elkoro, Maitane Muñoz, Iraitz Lazkano, Ainhoa Cabero, Anik Zubizarreta

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, bigarren puntua aho batez onartzen da.

3.- Erabilitako etxeko olio jasoteko edukiontzien horniduraren kontratuaren harira, CERVIC, S.A.ri bermea itzultzea onartzea, hala badagokio.

Erabilitako etxeko olio jasotzeko edukiontzien hornidura kontratua, CERVIC, S.A. Berme itzulera proposamena

CERVIC S.A. enpresak erabilitako etxeko olio jasotzeko 64 edukiontzi hornitu zizkion Mankomunitateari 2020.12.04an. Hornidura epeaz geroztik 2 urteko berme-epea igaro da eta edukiontziak baldintza egokietan daudela ziurtatu da, inolako fabrikazioa akatsik gabe. Hau kontuan izanik, CERVIC S.A. enpresak kontratua sinatzean jarritako 3.055€-ko bermea itzultzeko proposamena egiten da Ingurumen Zerbitzutik.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (7): Bernardo Kortabarria, Maite Anton, Unai Elkoru, Maitane Muñoz, Iraitz Lazkano, Ainhoa Cabero, Anik Zubizarreta

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, 3. puntua aho batez onartzen da.

4.- Erabilitako arropa eta objektu berrerabilgarri txikiak aparte biltzeko, jasotako materialak kudeatzeko eta edukiontzia garbitu eta mantentzeko zerbitzuari dagokion kontratazioaren harira, plegu teknikoak eta administrazio pleguak onartzea, hala badagokio.

Zerbitzuaren txostena:

ERABILITAKO ARROPA ETA OBJEKU BERRERABILGARRI TXIKIAK APARTE BILTZEKO, JASOTAKO MATERIALAK KUDEATZEKO ETA EDUKIONTZIAK GARBITU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA. HASERAKO TXOSTENA

Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedeak ondorengoak dira:

1. Kaleko edukiontzietan zein Garbiguneetan utzitako erabilitako arropa eta objektu berrerabilgarri txikiak jasotzeko zerbitzua ematea.
2. Jasotako materialak kudeaketa-plantara garraiatzea, motaren eta egoeraren arabera sailkatzea, egiaztatzea, garbitzea edo behar izanez gero konpontzea, eta doan banatzea edo saltzea, objektuak bestelako aurretiazko eraldaketarik egin gabe berrerabili ahal izateko. Halaber, jasotako materialen artean berrerabilgarri ezin diren hondakinak ere kudeatuko dira.
3. Klean kokatutako edukiontzia garbitu eta mantentzea.

Kontratuaren premia eta egokitasunaren justifikazioa

2018.03.19an indarrean sartu zen erabilitako ehunkiak eta tamaina txikiko objektu berrerabilgarrien gaikako bilketa, bildutako materialen kudeaketa eta edukiontzien garbiketa eta mantentze lanak egiteko zerbitzu kontratua (kontratista: EMAUS S.L.U.).

Kontratuaren epea 3 urtekoa zen, beste bi urtez luzagarria, gehienezko 5 urteko epea bete arte, izenpetzen den datatik zenbatzen hasita, hau da, gehienez 2023.03.19 arte.

Kontratu hau amaitzear dagoenez, ehunki eta objektu berrerabilgarriak bildu eta kudeatzeko eta euren edukiontzia garbitu eta mantentzeko zerbitzuaren kontratazio berria martxan jartzea beharrezko ikusten da. Ingurumen Zerbitzutik, haserako txosten honekin prozedurari hasera emanez.

Baliabide-urritasuna

Mankomunitateak hondakinen bilketarako zuzeneko 11 langile ditu bere plantillan. Langile hauen bidez, besteak beste, industrialdeetan etxeko hondakinen pareko hondakinen bilketa, alboko kargako edukiontzien mantenua, garbiguneetako hondakinen garraioa, garbigune ibiltari zerbitzua, kale garbiketako hondakinen bilketa, etab. burutzen dira. Baina plantilla hau ez da nahikoa Mankomunitateko udalerrietako ehunkiak eta tamaina txikiko objektu berrerabilgarrien bilketa egin ahal izateko.

Bestalde, Mankomunitateak ez du jasotako ehunki eta objektu berrerabilgarri hauek sailkatu eta kudeatzeko instalazio eta ingurumen baimenik. Ondorioz, erabilitako ehunkiak eta tamaina txikiko objektu berrerabilgarrien gaikako bilketa, bildutako materialen kudeaketa eta edukiontzien garbiketa eta mantentze lanak egiteko zerbitzua kanpoko enpresa baten bidez kontratatzea derrigorrezkoa da.

Prozedura: Irekia / **Tramitazioa:** Ohikoa

Kontratuaren epea

Kontratu honek 2 urte iraungo du, izenpetzen den datatik zenbatzen hasita, eta beste bi luzapen posible izango ditu: lehenengoa 2 urtekoa eta bigarrena beste urtebetekoa. Luzapen hauek kontratistarentzat derrigorrezkoak izango dira, baldin eta kontratuaren iraunaldia amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada aurretiko abisua.

Kaudimen tekniko edo profesionala

Azken bost urteetan kontratuaren xedearen antzeko ezaugarriekin egindako zerbitzu nagusien zerrenda aurkeztu beharko da, zeinean sartuko diren horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoak zein pribatuak. Egindako zerbitzuak organo eskudunak emandako edo bisatutako ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada, edo, hartzailea subjektu pribatu bat bada, horrek emandako ziurtagiriaren bitartez, edo, ziurtagiririk ezean, enpresariaren deklarazio baten bitartez.

Azken bost urteetan antzeko zerbitzuak egin izana egiaztatzen ez duten enpresen eskaintzak baztertu egingo dira.

Kontratu honi dagokion enpresa sailkapena ondorengoa da: R Taldea, 5. azpitaldea, 2. kategoria

Kontratua loteka ez banatzeko justifikazioa

Ehunkiak jasotzeko edukiontzietan objektu berrerabilgarri txikiak ere jasotzen dira. Ondorioz, ehunki zein objektu berrerabilgarri txikien bilketa eta kudeaketa horretarako baimendutako enpresa kudeatzaile berberak egin beharko luke. Hau da, kontratua ez litzateke loteka banatuko.

Baldintza berezia

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez, kontratu hau Enplegu Zentro Bereziatara eta gizarteratze enpresetarako erreserbatuta dago, 44/2007 Legeak, abenduaren 13koak, araututakoaren arabera, gizarteratze enpresen erregimena arautzeari dagokionez, baldin eta kontsidero hori izateko araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Kontratuaren prezioa eta balioaren zenbatespena

Lizitaziorako prezio hau finkatzen da, BEZa kanpo: 32.000 €/urteko.

Kontratuaren gehienezko luzapena (5 urte) kontuan izanik, kontratu honen zenbateko totala 160.000€ litzateke.

Proposatutako esleipen irizpideak. Justifikazioa

- Proposamen ekonomikoa: 50 ptu.
- Balio judizio baten menpe dauden esleipen irizpide teknikoak: 50 ptu:
 - Edukiontzia jasotzeko planifikazioa: jasoko diren kantitateen aurreikuspena. Maiztasunak. Ibilbideak. Egutegia eta ordutegiak. Jasotzeko prozedura eta sistematika urratsez urrats. Kargako kaxan jasotako materialen sailkapena. Tarterko pisaketak, proposatutako baskulak. Aurreikusitako deskargak: 15 puntu.
 - Jasotzeko eta garraiatzeko proposatutako bitarteko materialak eta pertsonalak: Ibilgailuen flota. Trinkotzea. Ibilgailuak objektu eta produktu berrerabilgarriak jasotzeko egokitzea. Karga ahalmen erabilgarria. Antzintasuna. Lantaldeen osaera: 5 puntu.

- Edukiontzia garbitzeko eta mantentzeko lanak egiteko prozedurak. Garbiketa eta ikuskapen egutegiak. Maiztasunak. Produktuak. Ekipoak. Garbiketa eta mantentze egoera kontrolatzeko prozedurak: 5 puntu.
- Bildutako materialen tratamendua: proposatzen den tratamendu planta. Planta Debagoiena eskualdetik zein distantziatarara dagoen. Plantan deskargatzeko modua. Pisuen kontrola. Prozedurak. Ekipamendu eta bitarteko materialak. Jasotako materialak sailkatzeko proposatzen diren kategoriak edo zatikiak. Zatikiko bakoitzaren izaera berrerabilgarria, birziklagarria, energetikoki balorizagarria edo ez (suntsitzeko errefusa). Jasotako materialak sailkatzeko kategorioa edo zatikiko bakoitzaren gutxi gorabeherako proportzioen aurreikuspena: 10 puntu.
- Garbitzeko, konpontzeko edo berrerabiltzeko prestatzeko proposatzen diren lanak. Objektu edo produktu berrerabilgarriak banatu, doan entregatu edo saltzeko proposatutako bideak. Banaketa zirkuituen hurbiltasuna Debagoiena eskualdearekiko. Prozesu osoaren trazabilitatea amaierako helmugetaraino. Banaketa kanal bakoitzera zuzentzea aurreikusten diren objektu edo produktu berrerabilgarrien proportzioa gutxi gorabehera: 7,5 puntu.
- Jasotako materialetan berrerabili ezin diren hondakinak kudeatzeko proposamena. Berreraili ezin diren ehunkiak, aparatu elektriko eta elektronikoen hondakin ez berrerabilgarriak, txatarra, zura, beste desegoki batzuk. Hondakin horien kudeaketaren trazabilitatea: 5 puntu.
- Seihilekoko deklarazioa. Informazioaren xehetasuna maila. Debagoieneko kantitateak zehazteko edo kalkulatzeko proposatzen den metodoa. Seihilekoko deklarazioarekin gehitu nahi den dokumentazio osagarria: 2,5 puntu

Proposamen ekonomikoari zein balio judizio baten menpe dauden irizpideei pisu bera eman zaie, zerbitzu honetan, prezioaz haratago doazen irizpideek garrantzi nabarmena baitute. Ehunki eta objektu berrerabilgarriak bildu eta kudeatzeko modu eta denborak kontuan hartu dira, guztien artean pisu gehien edukiontzia jasotzeko planifikazioari eman zaiolarik. Ezinbestekoa da edukiontzia behar den maiztasun osoarekin eta modu egokian jasotzea eta horregatik “Edukiontzia jasotzeko planifikazioa”-ri 15 puntu ematea proposatu da. Irizpide honen ondoren, “Bildutako materialen tratamendua”-ri esleitu zaizkio puntu gehien (10 puntu), jasotako ehunki eta objektu berrerabilgarrien sailkapen maila eta jasoko duten balizko tratamenduak duen garrantzia dela eta. Zentzu berean, “Garbitzeko, konpontzeko edo berrerabiltzeko prestatzeko proposatzen diren lan”-ei beste 7,5 puntu ematea proposatu da. Bestalde, “Jasotzeko eta garraiatzeko proposatutako bitarteko material eta pertsonala”-ri, “Edukiontzia garbitzeko eta mantentzeko lanak egiteko prozedura” eta “Jasotako materialetan berrerabili ezin diren hondakinak kudeatzeko proposamena”-ri, irizpide garrantzitsuak izan arren, bigarren mailako garrantzia eman zaio, zehazki bakoitzari 5

puntu esleituz. Azkenik, seiherero egin beharreko txosten informatiboari esleitu zaizkio puntu gutxien (2,5 puntu), gainontzeko irizpideek baino garrantzia gutxiago duela kontsideratu baita.

Puntua bozkan jartzen da, eta hau da emaitza:

Alde (7): Bernardo Kortabarria, Maite Anton, Unai Elkoro, Maitane Muñoz, Iraitz Lazkano, Ainhoa Cabero, Anik Zubizarreta

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, laugarren puntua aho batez onartzen da.

5.- Galdera eskaerak.

Ez dago.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 12:45etan, bukatutzat eman da bilkura.

Arrasaten, 2023ko otsailaren 14an

LEHENDAKARIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Ez ohiko bikurako akta